



8- FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure produktua saltzeko, hainbat jarduera egin behar ditugu. Hasteko gure produktuak nola funtzionatzen duen eta zertarako azaldu beharko diegu bezeroei. Horretarako bideo bat sortuko dugu, non labur gure produktua azaldu eta erakutsiko dugun. Horretarako, Nora sare sozialetan arloan lana egingo duenez, bera enkargatuko da bideo hori sare sozialetara eramateaz, jendeak bideoa ikusi ahal izateko.

Horren arira, herrietan konferentziak ere egingo ditugu, hau da, Euskal Herrian zehar mugituko gara gure produktua azaltzeko, erraktiboak nola funtzionatzen duen, erabilitako materiala nolakoa den etab. azaltzeko. Horretarako herrien alkateekin hitz egin beharko dugu hau posible izateko, eta hitzaldiak egin ahal izateko. Konferentzia hauen berri emateko, kartelak jarriko ditugu, horretarako herriko alkateekin berriz ere kontaktuan jarri beharko ginateke, haien herrietan kartel horiek jartzeko. Gainera, sare sozialetan ere kanpainia bat egingo genukeen honen berri emateko. Azkenik, herriko ikastolekara joango ginateke, BH eta DBH mailakora batez ere, gure produktuaren berri emateko.

Bestalde, konferentzia horietan, eta bideo horietan, gure Webguneren berri ere emango dugu, izan ere, bertan izago dute aukera gure TUSSEI edalontziak erosteko. Gure webgunea nola funtzionatzen duen erakutsiko dugu, eta dituen aukera guztiak azalduko ditugu. Hortaz gain, arazoak ez izateko bideo labur bat egingo dugu, eta webgunera igoko dugu, hortaz, norbaitek arazoak izatekotan bideo hori laguntzailea izango litzateke. Gainera webgunean gure enpresa telefonoa ere jarriko genukeen bezeroek edozein zalantza izatekotan gurekin kontaktuan jartzeko.